

Lau liburu aurkeztu dira fakultatean, HUHEZiko zenbait lankidek egindakoak

2010/05/02

Joan den apirilaren 30ean, Joxe Anjel Aldai, Idurre Alonso eta Joseba Azkarraga HUHEZiko irakasleek lau liburu aurkeztu zituzten fakultatean bertan, eurek eta beste zenbait lankidek egindakoak. Liburu aurkezpena lagun artean egin zen.

Hezkuntza eta kooperatibismoa

Joseba Azkarragak, adibidez, bere azken liburua aurkeztu zuen, oraingo hau **Gizabidea Fundazioak** eskatuta. Euskaraz izena du *Hezkuntza, gizartea eta eraldaketa kooperatiboa*. Gaztelaniaz, berriz, *Educación, sociedad y transformación cooperativa*.



Literatura irakaskuntzan

Idurre Alonsok ere bere azken liburua aurkeztu zuen: *Erdigune literarioak irakaskuntzan*. Bertan aztertzen du zelan irakasten den literatura batxilergoan. Liburua oinarrituta dago Idurreren doktore tesian. Bere hitzetan, "Orain arte kritikoez gehien gomendatzen zituzten liburuak irakurtzen ziren. Orain aldatzen ari da: sarien arabera, promozioen arabera eta ikasleen euren gustuen arabera ari dira erabakitzen zer irakurriko den".

Euskararen berreskuratzea

Joxe Anjel Aldaik Garabide elkartearen azken liburua aurkeztu zuen: *Euskararen berreskuratzea. Hizkuntzak biziberritzeko gako batzuk*. Liburua lau hizkuntzatan kaleratu da --euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez eta frantsesez--, DVD batekin batera, eta helburua du euskararen normalizatzeko prozesuaren berri zabaltzea bai Euskal Herrian eta baita herri indigenen artean. **Lore Agirrezabalek** koordinatu du, beste lagun hauen laguntzarekin: **Jon Sarasua**, **Urko Kolomo**, **Iñigo Iñurrategi**, **Andoni Mujika** eta **Julen Arexolaleiba**. Jonek eta Urkok New Yorken aurkeztu zuten liburua, Nazio Batuen Erakundeak antolatutako Herri Indigenen Gaietarako Foro Iraunkorrean.

Testugintza administrazioan

Idurre Alonsok astia izan zuen beste liburu bat aurkezteko: *Administrazioko testugintza sakontzeko ikastaroa. Europako Erreferentzi Marko Bateratuko C2 mailara egokitua*, berak **Eneritz Garrok** eta **Asier Irizarrek** egindakoa IVAPentzat. Liburuan hainbat azalpen eta ariketa eskaintzen zaizkio euskaraz hobeto idatzi eta hitz egin nahi duenari; bereziki, administrazioko langileentzat dago pentsatua. HUHEZiko hainbat lankidek parte hartu du modu batera edo bestera publikazio honetan.